BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

# ALDUNDIAK BATZAR NAGUSIETAN AURKEZTU DITU BATUZ EZARTEAGAITIK DAGOZAN KENKARI FISKALAK ETA SUSPERRALDIA BULTZATZEKO PIZGARRI BARRIAK

- **José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako diputatuak agerraldia egin dau Bizkaiko Batzarren aurrean, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera Batuz sistemea borondatez apliketeagaitik egongo diran pizgarriak azaltzeko, 2024ra arte derrigorrezkoa izango ez dan arren, eta baita suspertze ekonomikoa bultzatzeko neurriak azaltzeko be. Neurri horreek "Silver economy" dalakoan, talentuaren erakarpenean, ekintzailetzan eta kalidadeko enpleoan jarten dabe arretea.**

*(Bilbon, 2021eko urriaren 19an).* Foru Aldundiak, suspertze ekonomikoa bultzatzeko neurri barriak eta BATUZ sistemea borondatez apliketeagaitik egongo diran kenkariak eta izaera teknikoko beste neurri batzuk be aurrera aterateko erabili gura dan Foru Arau Proiektua ekarri dau gaur Ogasun eta Finantza Batzordera.

Ogasun eta Finantzetako Batzordean Batzar Nagusietako taldeei aurkeztutako arau proiektuak hiru titulu ditu. Bigarrenean, Jose Maria Iruarrizaga Ogasun eta Finantza diputatuak azaldu dauenez, arau proiektuak pizgarri fiskal bat ezarten dau 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera Batuz ezarten daben enpresa eta profesionalentzat. Sistemearen konplexutasuna dala eta, Ogasunak, azkenik, hurrengo ekitaldi bietarako indarrean egongo dan borondatezko atxikipen-aldi bat ezartea erabagi dau.

Borondatezko ezarpena sustatzeko, zergadunek PFEZren edo Soziedadeen gaineko Zergaren zerga-oinarria murriztu ahal izango dabe. Konpentsazino hori handiagoa izango da Batuz zenbat eta lehenago ezarri; lehen hiruhilekoa baino lehen ezarten dabenek % 15 murriztuko dabe 2022ko eta 2023ko ekitaldietako zerga-oinarria.

Batuz onartzeak fakturazinoa kontroletako TicketBai sistemaren fakturak jaulkitzea, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan Eragiketa Ekonomikoen Erregistro Liburua (EEEL-LROE) eroatea dakar berekin. Bertan, enpresak edo profesionalak bere diru-sarrerak, gastuak eta fakturak aitortu behar ditu. Arauak, ezarpen horretatik eratorritako kostuengaitik dagozan kenkarien luzapena be jasoten dau.

Arauaren titulu horren helburua enpresak eta profesionalak Batuz borondatez ezartera animetea da, Covid-19aren pandemiak eragindako krisi ekonomikoaren ondorio txarrenak pairatzen ari diran zergadunei betebehar gehiago ezarri barik. Zergadunen

eskariari erantzunez, Batuz ezartea ez da derrigorrezkoa izango 2024ra arte, jarduera ekonomikoak egiten dituen Bizkaiko persona fisiko edo juridiko guztientzat.

Edozelan be, aurkeztutako foru arau proiektuak beste neurri batzuk be barne hartzen ditu, besteak beste, lehendik dagozan zerga-neurri batzuk indartzen dituen hiru neurri eta prozesu hori bizkortzeko "egokitzat" joten diran beste osagarri bi.

Hain zuzen be, laugarren eta bosgarren neurriek kalidadeko enpleoa sortzen daben enpresak sustatzen ditue, batez be lan-merkauan sartzeko erraz ez daukien kolektiboetako personak kontratetan baditue. Modu berean, behargINen profesionalizazinoa sustatzen da Bizkairako estrategikoak diran sektoreetan, zidarrezko ekonomian eta zainketen ekonomian, adibidez.

Daborduko martxan dagozan lehenengo hiruretan ekintzailetza, talentua eta kalidadeko enpleoa sustatzeko neurri-sorta bat proponiduten da. Adinekoen zaintzan sakonduko da, "Silver economy" izenekoan, eta jarduera ekonomiko barria sortzen daben ekintzaileentzako pizgarriak indartuko dira. Atzerriko behargin kualifikauen etorrerea erakarteko fiskalitate "lehiakorra" be egongo da.

Azkenik, Iruarrizagak "izaera teknikoko" aldaketen barri emon dau, tributazino orokorraren bilakaerak berak eta jurisprudentziak eragindako aldaketak dirala eta, eta arau-proiektuaren III. tituluan sartu dira.

BATZAR NAGUSIETAKO TALDEAK

Elkarrekin Bizkaiaren eretxiz, "ez dauko zentzunik" proiektu berean "hain desbardinak diran gaiak" aurkezteak. Eneritz de Madariaga bozeroalearen berbetan, Aldundiak hartu gura dituan neurriak "orain arteko gauza bera" dira, eta "fiskalitatearen ekitate faltea areagotzea" dakarre, "dirudunek" aurrezkiak inbertidu eta pizgarriak lortu daiezan.

Beste alde batetik, EH Bilduk, talde moreak bezela, "Silver economy" dalakoan sartzen diran jardueren definizino baten faltea ikusi dau, proponidutako pizgarri askoren helburua adinekoen zaintzaren arloan jarduera ekonomikoa bultzatzea dalako. Hemen, Talde Berezia-PPk "asmo handiagoko" pizgarriak eskatu ditu, baina azaldu dau arau-proiektuaren I. tituluaren (ekonomia suspertzeko neurriei buruzkoa) eukiaren "musikeagaz" bat etorri daikean arren, "ez dala nahikoa"; izan be, popularrek erreforma fiskal "orokor" baten aldeko apustua egiten dabe.

Batuz sistemari jagokonez, EH Bilduk eta Talde Berezia-PPk "zentzuzkotzat" jo dabe sistema horren ezarpena urte bi atzeratzea, martxan jarri beharreko neurrien eragina eta aurreko Errenta kanpainan izandako esperientzia digitala dirala eta.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PANDORAREN PAPERAK

Batzordean, EH Bilduk, herritarrek Errentaren kanpainan parte hartzeko daukien bidearen eta Bizkaiko zergadunak “Pandoraren paperak” izenekoetan identifiketearen ganeko erantzun-eske bi egin ditu. Azken gai horri jagokonez, koalizino abertzaleak Bizkaian egoitza fiskala daukien zergadunen agiriak ezagutzeko eta ikertzeko emon dituan pausuez galdetu deutso diputatuari.

Iruarrizagak onartu dau “ikerketa lanak” egiten ari dirala “ahal dogun neurrian”. Hain zuzen be, diputatuak azaldu dauenez, “urriaren 5ean” Bizkaiko Ogasuneko Ikuskaritzako beharginak Zerga Administrazinoko Estatu Agentziara joan ziran kasuari buruz “eskura dagon informazino guztia” edo “iruzurrezko jokabideak erregularizetako frogak” eskatzeko. Une honetan, Ogasun Saila erantzuna jasotearen “zain” dago. Tartean Bizkaiko zergadunik badago, “beharrezko frogak lortzeko prozesu administratiboak jarriko dira martxan”. Ogasunak “ondorio guztiakaz” jokatuko dau irregulartasunak edo delitu fiskalak atzemanen baditu, esan dau.

NOTA DE PRENSA

# LA DIPUTACIÓN PRESENTA EN LAS JUNTAS GENERALES LOS DEDUCIONES FISCALES POR IMPLANTAR BATUZ Y NUEVOS INCENTIVOS PARA IMPULSAR LA RECUPERACIÓN

- **El diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, comparece en la Cámara vizcaína para explicar los incentivos por la aplicación voluntaria del sistema Batuz desde el 1 de enero de 2022, aunque no será obligatorio hasta 2024, y medidas para el impulso de la reactivación económica, que ponen el foco en la “silver economy”, la atracción del talento, el emprendimiento y el empleo de calidad.**

(*Bilbao, a 19 de octubre de 2021*). La Diputación ha traído hoy a la Comisión de Hacienda y Finanzas el Proyecto de Norma Foral con el que quiere sacar adelante nuevas medidas de impulso de la reactivación económica, y las deducciones por la aplicación voluntaria del sistema BATUZ, además de otros cambios tribuarios de carácter más técnico.

El proyecto de norma presentado a los grupos junteros en la Comisión de Hacienda y Finanzas incluye tres títulos. En el segundo, según ha explicado el diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, el proyecto de norma establece un incentivo fiscal para aquellas empresas y profesionales que implanten Batuz desde el 1 de enero de 2022. Debido a la complejidad del sistema, Hacienda apuesta finalmente por establecer un periodo de adhesión voluntaria que estará vigente para los dos próximos ejercicios.

Para incentivar la implantación voluntaria, los contribuyentes podrán reducir su base imponible de IRPF o Impuesto sobre Sociedades. Esta compensación será mayor cuanto antes implanten Batuz; quienes lo hagan antes del primer trimestre del año próximo reducirán un 15% su base imponible de los ejercicios 2022 y 2023.

La adopción de Batuz conlleva la obligación de emitir facturas con el sistema TicketBai de control de la facturación, y la llevanza en la sede electrónica de la Diputación Foral del Libro Registro de Operaciones Económicas (LROE), donde la empresa o profesional debe declarar sus ingresos, gastos y facturas. Esta norma incorpora también una prórroga de las deducciones por los costes derivados de esta implantación.

El objetivo de este título segundo del proyecto de norma foral es animar a empresas y profesionales a que implanten Batuz de manera voluntaria, sin establecer nuevas obligaciones a aquellos contribuyentes que están sufriendo las peores consecuencias de la crisis económica originada por la pandemia del Covid-19. Respondiendo a la demanda de los propios contribuyentes, la implantación de Batuz no será obligatoria hasta 2024 para todas las personas de Bizkaia, físicas o jurídicas, que desarrollan actividades económicas.

Asimismo, el proyecto de norma foral presentado por el diputado de Hacienda incluye otras medidas desde la fiscalidad para la recuperación del tejido económico, entre ellas, tres que refuerzan ciertas medidas fiscales ya existentes y otras dos complementarias que se consideran “idóneas” para acelerar dicho proceso.

Precisamente, la cuarta y quinta medidas incentivan a las empresas que crean empleo de calidad y especialmente si contratan a personas de colectivos de difícil integración en el mercado laboral. Además, se incentiva la profesionalización de las personas trabajadoras en sectores estratégicos para Bizkaia como la economía plateada y la economía de los cuidados.

En las tres primeras -ya existentes- se propone un paquete de refuerzo de las medidas de fomento del emprendimiento, el talento y el empleo de calidad. Se profundizará en el cuidado de mayores, en la denominada “silver economy”, y en el refuerzo de incentivos para las personas emprendedoras que creen nueva actividad económica. Habrá también una fiscalidad “competitiva” para atraer la llegada de personal extranjero cualificado.

Por último, Iruarrizaga ha dado cuenta también de modificaciones “de carácter técnico” debido a la propia evolución de la tributación general y a cambios motivados por la jurisprudencia, que se incluyen en el título III del proyecto normativo.

GRUPOS JUNTEROS

Elkarrekin Bizkaia cree que “carece de sentido” presentar en el mismo proyecto “cuestiones tan dispares”. Para su portavoz, Eneritz de Madariaga, las medidas que pretende adoptar la Diputación son “más de lo mismo” y suponen “incrementar la falta de equidad de la fiscalidad” para que “las personas adineradas” inviertan sus ahorros y obtengan incentivos por ello.

Por su parte, EH Bildu ha echado en falta, al igual que el grupo morado, una definición de las actividades que se engloban en la “silver economy”, ya que muchas de los incentivos propuestos tienen como destino impulsar actividad económica en el ámbito

del cuidado de las personas mayores. Aquí el grupo Mixto-PP ha pedido incentivos “más ambiciosos”, si bien ha explicado que la “música” del contenido del título I del proyecto de norma –el referido a las medidas de reactivación económica- “puede ser compartida” pero es “insuficiente”, ya que los populares apuestan por una reforma fiscal “general”.

En cuanto al sistema Batuz, tanto EH Bildu como el grupo Mixto-PP han visto “razonable” que se retrase su implantación obligatoria dos años, dado el impacto de las medidas a poner en marcha y a la experiencia digital en la pasada campaña de la Renta.

PAPELES DE PANDORA

En la comisión se han sustanciado sendas preguntas de EH Bildu sobre el canal de participación ciudadana en la campaña de la Renta y sobre la identificación de contribuyentes vizcaínos en los llamados “Papeles de Pandora”. En cuanto a este último asunto la coalición abertzale le ha preguntado al diputado por los “pasos dados para conocer e investigar” la existencia de estos documentos con contribuyentes con domicilio fiscal en Bizkaia.

Iruarrizaga ha admitido que están llevando a cabo “actuaciones de investigación dentro de nuestras posibilidades”. Concretamente, el diputado ha explicado que “el 5 de octubre” personal de Inspección de la Hacienda vizcaína se trasladó a la Agencia Estatal Tributaria para pedir “cuanta información se disponga” sobre este caso o “pruebas que permitan la regularización de conductas fraudulentas”. En estos momentos, el departamento de Hacienda “está a la espera” de recibir una respuesta. En caso de que hubiera contribuyentes de Bizkaia implicados, “se pondrán en marcha los procesos administrativos correspondientes para conseguir las pruebas necesarias”. Hacienda actuará “con todas las consecuencias” si detecta irregularidades o delitos fiscales, ha dicho.